

**OINARRI-ARAU ESPEZIFIKOAK,
ERANDIO ELIZATEKO UDALEAN HUTSIK DAGOEN
KARRERAKO FUNTZIONARIO PLAZA BAT
OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ
BETETZEKO PLAZA:**

ERANDIO ELIZATEKO UDALA

I. ERANSKINA

1.- DEIALDIKO PLAZA.

A) Izena:

Obra ikuskatzailea

B) Plaza kopurua:

- Obra ikuskatzaile plaza bat. Eskala: Administrazio Berezia. Azpieskala: Zerbitzu Bereziak. Mota: Teknikari laguntzailea. Soldatari dagokionez, plaza hau C1 ordainsari-taldekoa da, lanpostu-mailako osagarriaren 18. maila du eta berariazko osagarria, aparteko ordainsariak, hirurtekoak eta indarreko legeriaren edo Udalbatzak hartu dituen erabakien arabera dauden gainerako ordainketak edo zerbitzu-sariak ditu.

C) Lanpostuaren egitekoak:

Indarrean dauden legeetan ezarritakoak eta, bereziki, Erandioko Udalbatzak 2005eko azaroaren 24an onartutako lanpostuko zereginen orrian deskribatutakoak.

2.- Berariazko betebeharrak:

- Goi mailako batxilerra, Lanbide Heziketaren bigarren gradua, edo bateragarria den beste titulu bat edukitzea, edo, bestela, eskabideak aurkezteko epea amaituko denerako halako tituluren bat lortzekotan izatea

- 3. hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkoa.

3.- **HAUTAKETA PROZEDURA**

Hautagaiak oposizio-lehiaketa sistemaren bidez aukeratuko dira.

OPOSIZIO FASEA

1. **Lehenengo ariketa (nahitaezkoa eta baztertzailea).**

Izangaiek idatziz garatuko beharko dituzte gai-zerrenda orokorreko gai bat eta gai-zerrenda espezifikoko beste bi gai. Azterketa egiteko, gehienez ere, hiru ordu izango dute eta, azterketa egin aurretik, epaimahaiak erabakiko ditu gaiak. Hautatutako gaiak deialdiaren eranskinetako programarekin lotuta egongo dira, epigrafe bera izan ez arren. Azalpena egiteko orduan askatasun osoa izango dute izangaiek.

Ariketa hau baloratzeko orduan, epaimahaiak kontuan hartuko ditu gaiaren inguruko ezagupenak, ideiak argi azaltzeko gaitasuna, idazteko trebetasuna eta laburbiltzeko gaitasuna.

Izangaiek ariketa jendaurrean irakurtzea erabaki ahal izango du epaimahaiak, horretarako adieraziko dituen egunean eta orduan.

Ariketa hau zero (0) eta hogeit (20) puntu bitartean kalifikatuko da eta hamar (10) puntu lortzen ez dituztenak baztertuta geratuko dira.

2.- **Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzailea).**

Suposamendu praktiko bat edo batzuei buruzko txostena idatzi behar dute izangaiek, eta horretarako, gehienez, bi orduko epea izango dute. Lanpostuaren zereginekin eta gai-zerrendan azaldutako gaiekin zerikusia izango dute epaimahaiak ariketa hasi aurretik prestatuko dituen suposamendu horiek. Proba egiteko kontsulta-liburuak eta legezko testuak erabiltzeko aukera izango dute izangaiek.

Ariketa hau zero (0) eta hogeit (20) puntu bitartean kalifikatuko da eta hamar (10) puntu lortzen ez dituztenak baztertuta geratuko dira.

Ariketa hau baloratzeko orduan, epaimahaiak kontuan hartuko ditu arrazoitzeko gaitasuna, planteamendu eta ondorioen azalpen

sistematikoak, bai eta aplikagarri diren araudiak ezagutzea eta modu egokian interpretatzea.

3.- Hirugarren ariketa. (euskara-proba)

Hautagaiek hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar dute, epaimahaiak zehaztutako eran; ondorio hauetarako, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 atalaren arabera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako zuzentarauei jarraituko zaie.

Azterketa hau ez dute egin beharko HAEEn agiri bidez 3. hizkuntza-eskakizuna badutela egiaztatzen dutenek edota euskararen erabilera arautzeko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuaren 41. atalean baldikidetasun-ondorioetarako adierazitako tituluren bat dutenek.

Hirugarren ariketa hau, nahitaezkoa eta baztertzailea da eta Gai edo Ez Gai kalifikatuko da. Gaitasuna lortu beharko da ariketa gainditzeko.

LEHIAKETA-ALDIA.-

Baztertzailea izango ez den lehiaketa fase honetan, Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera alegatu eta egiaztatu diren merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Merezimendu bakoitzari hurrengo merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituko zaizkio:

1.- Lan esperientzia

Edozein herri administraziotan lanpostuaren zereginetan egindako zerbitzuengatik, 0,25 puntu emango dira hilabete bakoitzeko; gehienez 10 puntu.

Zenbaketa egiteko, lan egindako aldi guztiak batuko dira, eta, beraz, zerbitzuak ematen egindako hilabete zein egunak guztiak hartuko dira kontuan. Elkarren segidakoan izan ez diren egunen zatikiak batzeko bakarrik, hilabetea osatzearren, egutegiko 30 egunez eman behar izan dira zerbitzuak. Aurreko paragrafoan adierazitako benetan lan egindako egun eta hilabeteen batuketa egin ondoren, hilabetea osatzen ez duten zatikiak baztertuko dira.

3.- Prestakuntza edo hobekuntza-ikastaroak.

Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak, erakunde ofizialek edo horiekin lankidetzan dabiltzan erakunde pribatuek eman edota antolatu badituzte eta gauzatu beharreko zereginekin lotutako gaietarako buruzkoak badira: 2 puntu, gehienez.

- 20 ordu arteko ikastaroak: 0,20 puntu.
- 21-50 orduko ikastaroak: 0,30 puntu.
- 51-100 orduko ikastaroak: 0,40 puntu.
- 100 ordutik gorakoak: 0,50 puntu.

HAEEK, INAPEK eta IEAPEK antolatutako ikastaroen gain, baloragarriak izango dira Unibertsitateek eta Hezkuntza Sailen mendeko ikastegiak emandakoak, baita edozein zentro ofizialek (Sailak, Ministerioak, Merkataritza Ganberak, Elkargo Ofizialak, eta abar) bakarrik zein besteren batekin lankidetzan antolatutakoak zein akademia homologatuek antolatutakoak ere, baldin eta bertaratze-egiaztagiria edo ikastaroa eman izanaren egiaztagiria aipatutako zentro ofizialek egin badute.

3.- Tituluak.

Goi-mailako unibertsitate titulua edukitzeagatik: 5 puntu.

Lehiaketa fasearen emaitzak udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoari jarraiki.

Hautagaien azken kalifikazioa hautatze-prozesu osoan lortu dituzten puntuen batura izango da. Lehiaketa-oposizioaren emaitza eta kalifikazio guztiak Oinarri Orokorretan adierazitako bulegoetako iragarki-tauletan argitaratuko dira.

4.- Gainditutakoen zerrendak, agiriak aurkeztea eta izendapena.

Hautagaien balorazioa egin ondoren, gainditu dutenen zerrendak argitaratuko ditu Balorazio Batzordeak, lortutako puntuazioaren arabera (Hautaketa-aldia gainditu dutenen kopurua ezin da izan deialdiko lanpostu kopurua baino handiagoa). Zerrendak Korporazioko lehendakariari bidaliko zaizkio izendapen-proposamenak egin ditzan.

Era berean, azken bilerako akta bidaliko dio epaimahaiak alkateari hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hori ere puntuazioaren arabera). Zerrenda hori praktiketako funtzionario izendatzeko proposatu direnen arteko norbait karrerako funtzionario lanpostuaz jabetuko ez balitz erabiliko da.

Halaber, hautaketa-prozesuko ariketa guztiak edo batzuk gainditu dituzten hautagaien zerrendak udal honetan aldi baterako Obra Ikuskatzaile lanetan aritzeko hautagaiak izendatzeko erabili ahal izango dira aurrerantzean, helburu horrekin sortuko den lan-poltsaz baliatuta.

5.- Izendapena, praktikak eta kargua hartzea

5.1.- Izendapena: Aipatutako dokumentuak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak praktiketako funtzionario izendatuko ditu izangaiak; izan ere, praktiketan egongo dira izendapenean adierazitako egunetik lanpostua jabetzan hartu arte edo, bestela, prestakuntza ikastaroan edo praktiketan kanporatu arte.

5.2.- Praktika-aldiak gehienez **sei hilabete** iraungo du. Praktika-aldia bukatu baino lehen, dagokion Saileko nagusi hierarkikoak praktiketako funtzionario bakoitzari buruzko txostena egingo du, Oinarri Orokorren hamargarren oinarriko hirugarren atalean ezarritako irizpide orokorrak aintzat hartuta.

5.3.- Behin betiko izendapena: Izangaien behin betiko kalifikazioa eta lehenetsun-ordena, ikastaroan lortutako puntuazioaren eta oposizio fasean lortutakoaren arteko baturaren arabera izango da; hala ere, behin betiko onespena lortzeko ezinbesteko baldintza izango da praktiketan gaitasun-ziurtagiria eskuratzea.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Erandioko udaletxeko iragarki-taulan eta Erandio Elizateko Udalaren (www.erandio.net) web orrian argitaratuko dira.

5.4.- Kargua hartzea: Udaleko organo eskudunak proposamena onetsitakoan, izendatutako izangaiek karguaz jabetu eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan eskatutako baldintza bete beharko dute hogeita hamar (30) eguneko epean, izendapena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Ezarritako epearen barruan eta baldintzetan lanpostuaz jabetzen ez direnek, justifikatzeko moduko arrazoirik ez badago, karguari uko egin diotela ulertuko da, eta kasu horretan Oinarri Orokorren bosgarren atalaren hamargarren oinarrian xedatutakoa aplikatuko da.

Kargua hartzeko egunean bertan hartuko du alkateak lanpostu hutsetako behin betiko adskripzioaren inguruko erabakia. Adskripzio hori hautaketa-prozesuko behin betiko sailkapen-

ordena kontuan izanda egingo da, hautatutako pertsonen adierazitako nahien arabera, lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak betetzen badituzte, betiere.

GAI OROKORRAK

- 1. gaia.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa (Atariko Titulua eta II. Titulua).
- 2. gaia.-** 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (I. eta II. Tituluak)
- 3. gaia.-** 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (V., VI. eta VII. Tituluak)
- 4. gaia.-** Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Araua (Atariko Titulua eta I. Titulua).
- 5. gaia.-** Tokiko Erakundeen antolakuntza, jardura eta araubide Erregelamendua, 2568/86 Errege Dekretua, azaroaren 28koa (Atariko Titulua, I. Titulua eta II. Titulua)
- 6. gaia.-** Tokiko Erakundeen antolakuntza, jardura eta araubide Erregelamendua, 2568/86 Errege Dekretua, azaroaren 28koa (VI. eta VII. Tituluak)
- 7. gaia.-** 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena (Atariko Titulua eta I., II, eta III. Tituluak).
- 8. gaia.-** 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena (IV., V. eta VI. Tituluak).
- 9. gaia.-** 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena (Atariko Titulua eta VII, VIII, IX eta X. Tituluak).
- 10. gaia.-** 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. Kontratazioaren alorrean eskumena duten organoak.
- 11. gaia.-** 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. Erregistro ofizialak. Kontratuzko publikitatearen kudeaketa baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoen bidez.
- 12. gaia.-** Administrazioaren legearekiko eta zuzenbidearekiko mendekotasuna. Zuzenbide publikoaren iturriak: Legea eta erregelamendua.

- 13. gaia.-** Herri administrazioen nortasun juridikoa. Zuzenbide publikoko pertsona juridikoak.
- 14. gaia.-** 6/89 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa: funtzionario publikoen eskubideak eta betebeharrak. Ordainsarien araubidea.
- 15. gaia.-** 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko oinarritzkoa.
- 16. gaia.-** 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa Atariko Titulua eta I. titulua.
- 17. gaia.-** 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa II. eta III Tituluak.
- 18. gaia.-** 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa IV. eta V. Tituluak.

GAI ESPEZIFIKOAK

- 1. gaia.-** Hirigintza obrak zaintzeko eta hirigintza obrak jasotzeko betekizuna.
- 2. gaia.-** Zaintzeko eta birgaitzeko betekizuna. Eraikuntzak eta eraikinak aldiro ikuskatzea.
- 3. gaia.-** Hirigintzako legezko aurri egoera. Zaintze- eta hobetze-lanak egiteko aginduak. Hur-hurreko aurri fisikoa.
- 4. gaia.-** Hirigintza-diziplina. Administrazio ahalmenak eta betetzeko jardueraren aurrekontuak.
- 5. gaia.-** Hirigintza lizentziak. Hirigintza lizentziaren mendeko ekintzak eta Herri Administrazioek sustatutako ekintzak.
- 6. gaia.-** Hirigintza lizentziak emateko eskumena eta prozedura.
- 7. gaia.-** Denboraren eraginkortasuna eta hirigintza lizentziaren iraungipena.
- 8. gaia.-** Hirigintza ordenamendu berriarekin bat ez datozen hirigintza lizentziak. Enpresa hornitzaileek zerbitzuak kontratatzea.
- 9. gaia.-** Hirigintza ordenamendua betetzea eta gordetzea bermatzeko neurriak eta publizitatea.
- 10. gaia.-** Informazioa eta publizitatea obretan.
- 11. gaia.-** Hirigintza ikuskatzailetzaren izaera eta betekizunak. Bisitaldiak eta ikuskatzailetza-aktak.
- 12. gaia.-** Hirigintzako legediaren babesean, eteteko kautela-neurria.
- 13. gaia.-** Aldatutako legezko ordena berrezartzea eta aldatutako errealitate fisikoa berrezartzea.
- 14. gaia.-** Legezketasuna babesteko ekintzen eta zigor prozeduraren arteko lotura.
- 15. gaia.-** Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenak hirigintza ordenamenduaren babesari dagokionez.
- 16. gaia.-** Hirigintza ordenamenduarekin batera ezinak diren lizentziak edo betetzeko aginduak.

- 17. gaia.-** Hirigintzako arau-haustek eta dakarten ondorioak.
- 18. gaia.-** Hirigintzako arau-hausteen ardura duten pertsonak.
- 19. gaia.-** Hirigintzako eskumena eta zigor prozedura.
- 20. gaia.-** Zigortzeko erantzukizuna eskatzeko arauak eta zigorrak aplikatzea.
- 21. gaia.-** Hirigintzako arau-haustek eta dakarten ondorioak. Preskripzioa.
- 22. gaia.-** Lege-haustek eta zigorrak, partzelazioari dagokionez.
- 23. gaia.-** Lege-haustek eta zigorrak, betetzeari dagokionez.
- 24. gaia.-** Lege-haustek eta zigorrak, eraikigarritasunari eta zoruaren erabilerari dagokienez.
- 25. gaia.-** Lege-haustek eta zigorrak, arkitektura-, historia-, kultura-, natura- eta paisaia-ondare ondasunei eta guneei dagokienez, baita ikuskatzaileen lana oztopatzea dakarren ekintzei dagokienez ere.
- 26. gaia.-** Garraioaren eta Komunikazioaren arkitektura-oztopoak kentzea.
- 27. gaia.-** Kaleak urbanizatzea. Betetzea. Neurketa eta balorazioa.
- 28. gaia.-** Hornidura eta banaketa. Betetzea. Neurketa eta balorazioa. Obra bereziak.
- 29. gaia.-** Saneamendua. Betearaztea. Neurketa eta balorazioa.
- 30. gaia.-** Fabrika-obrak: hormigoia, harlangaitza, adreilugintza. Betetzea. Baloraziorako eta neurketarako irizpideak.
- 31. gaia.-** Obrak seinalizatzea.
- 32. gaia.-** Osasuna eta segurtasuna eraikuntza lanetan: Lan arriskuak eraikuntza lanetan. Prebentzio neurriak eta babes teknikoak arriskuak kontrolatu eta murrizteko. Segurtasun- eta osasun-azterketak. Laneko osasun- eta segurtasun-plana.

II. ERANSKINA

LANPOSTUAREN EZAUGARIAK

1.- **LANPOSTUAREN IZENA**

Obra ikuskatzailea

2.- **LANPOSTUAREN KODEA**

6037

3.- **ATALA:**

Obrak, Zerbitzuak, Hirigintza eta Ingurumena

4.- **NAGUSI HIERARKIKOA.**

Obra eta Zerbitzuetako aparejadorea, Urbanizazioa eta Eraikuntza, eta hierarkikoki gaineratik dauden agintariak.

5.- **BERE MENPEKO LANPOSTUAK**

--- --- ---

6.- **LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNA**

Hirigintza-diziplinako ikuskatzailetza lanak egitea eta obretako jarraipena egitea.

7.- **EGINKIZUN NAGUSIAK.**

- Hirigintza-diziplinako espedientei buruzko txostenak egitea
- Ikuskatzailetza funtzioak betetzea hirigintza diziplinari dagokionez (lizentzien kontrola eta jarraipena, partikularren salaketak, zigor espedienteak, ...)
- Udalak edo herritarrek egindako obretako jarraipena.

- Egoeraren jarraipena egitea, eta azpiegiturak eta arloko eskumenekin lotutako salaketak gainbegiratzea.
- Tresna informatikoen erabilera aurreratua.
- Agintzen dizkioten eta lanpostua betetzeko eskatu zaion edo jaso duen prestakuntzarekin bat datozen beste zeregin batzuk.